

Agur euskaltzale hori!

Jakin badakigu berri honen berri izango duzula baina, badaezpada ere, gutun honen bidez 12. KORRIKA hemen dela jakinarazi nahi dizugu.

20 URTE dira Euskal Herriko Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) KORRIKA sortu eta, bi urtez behingo maiztasunez bada ere, euskararen alde MUGITZEKO tresna hau eskeini ziola Euskal Herriari. Ordutik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da KORRIKA.

20 urteotan, AEKk sortu eta euskal herritarrek eta euskaldunok aurrera eraman dugun KORRIKak bide luzea egin du EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN alde, gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua bilduz eta gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertuz.

Eta egungo egitasmoa, alegia, Nafarroa eta Iparraldeko ikasguak sustatzea da, eta bereziki, Baionan euskaltegi eta herrialdeko egitura kokatzeko egoitza zabaltzea. Izan ere, Nafarroan eta Iparraldean euskarak administrazioetatik jasotzen dituen diru-laguntzak urriak dira, eta gutxieneko beharrianak estaltzera ere ez dira heltzen. Euskal Herri osoan EUSKARA OFIZIALA EZ izatearen ondorio da hau. 20 urteotako lorpenak handiak izan dira...baina ez nahikoak, antza. Kontseiluaren Bai Euskarari kanpainak Euskal Herriaren EUSKARARENGANAKO ALDEKOTASUNA argi eta garbi utzi duen arren, aurreko hamarkadak euskararen PRESTIGIOA herritarren artean INOIZ BAINO GORAGO ikusi badu ere, egun gure hizkuntza maitea UNE LARRIA jasaten ari da. Euskal Herriaren hitza, EUSKARA, erasotzen ari dira. Horra hor AEKren aurkako azken eraso. Hau ez da izan eraso isolatu bat. Euskal sena eta euskararen aurkako eraso itzela da hau: ikastolak, euskaltegiak, errotulazioa, euskal kurrikulua, euskal prentsa, euskal editoreak... Ezin dugu geldirik egon, MUGITU beharra dago! Denok batera eta inoiz baino ilusio, KONPROMISO eta irmotasun handiagoz. Une latzak dira hauek, baina bere historia luzean une latz ugari igarotakoa da gure euskera, eta beti egin du aurrera euskal gizartearen bultzada eta laguntzari esker.

Horregatik, aukera hau baliatu nahi dugu zu / zuen erakundea gonbidatzeko **Altzako KORRIKA Batzordearen** lehen bilerara, KORRIKAREN antolaketan parte har dezazun / dezazuen.

Non eta noiz: otsailaren 20an, asteartea, Azpil AEKeuskaltegian, 18:30tan.
--

Milaka lagun arituko gara, herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan KORRIKAREN inguruan, euskal gizarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egiten duen apustuaren tamaina islatuz (600.000 pertsona baino gehiago azkenengo Korrikan).

Zatoz! / Zatozte!